



## Haurtzaroan ematen diren hirugarren genero-arrakala digitalaren eta ziberindarkeria-matxisten aurrean: hezkidetzak, aukerak eta erresistentziak.

**Laburpen exekutiboa. Euskadi eta Gran Kanariaren arteko emaitzen konparaketa.**

Deustuko Unibertsitateko Deusto Gizarte Balioak ikerketa-taldea eta Opciónate – Mejora Tu Vida (Kanaria) aholkularitza-enpresa.



# Aurkibidea:

<b>1. Proiektuaren testuingurua.</b>	04
<b>2. Sarrera-ohar batzuk.</b>	07
<b>3. Alfa belaunaldia. Arrakala eta joera digitalak; norberaren zaintza eta babes digitala.</b>	09
<b>3.1. Euskadiko adingabeak - Cyber-Resistance.</b>	10
3.1.1. 0 urtetik aurrerako sozializazio digitala.	10
3.1.2. Haurtzaroko genero-arrakala digitalak.	12
3.1.3. Haurtzarorako arrisku matxista digitalak.	12
3.1.4. Norberaren zaintzarako eta babes digitalerako mekanismoak.	14
<b>3.2. Gran Kanariako adingabeak - Cyber-Resistance.</b>	15
3.2.1. 0 urtetik aurrerako sozializazio digitala.	15
3.2.2. Haurtzaroko genero-arrakala digitalak.	15
3.2.3. Haurtzaroko arrisku matxistak.	15
3.2.4. Norberaren zaintzarako eta babes digitalerako mekanismoak.	16
Euskadi eta Gran Kanariaren arteko antzekotasun eta desberdintasunen laburpen-taula, haurren narratibetan oinarrituta.	16
<b>4. Familia digitalizatuak. HIKTen inguruko dilemak, kontraesanak, erronkak eta aukerak.</b>	17
<b>4.1. Euskadiko familiak - Cyber-Resistance.</b>	18
4.1.1. Familien aniztasuna, guraso-estiloak eta estereotipoak.	18
4.1.2. Familia-dinamikak eta HIKTen erabilera.	19
4.1.3. Arrisku matxistak familia-ikuspegitik.	20
4.1.4. Familiek erabiltzen dituzten detekzio, prebentzio eta arreta-baliabideak.	20
<b>4.2. Gran Kanariako familiak - Cyber Resistance.</b>	21
4.2.1. Familien aniztasuna, guraso-estiloak eta estereotipoak.	21
4.2.2. Familia-dinamikak eta HIKTen erabilera.	21
4.2.3. Arrisku matxistak familia-ikuspegitik.	22
4.2.4. Familiek erabiltzen dituzten detekzio, prebentzio eta arreta-baliabideak.	22
Euskadi eta Gran Kanariaren arteko antzekotasun eta desberdintasunen laburpen-taula, familien narratibetan oinarrituta.	22

<b>5. Eskolak aro digitalean. Aniztasunaren eta HIKTen kudeaketaren aurrean dituzten erronkak eta aukerak.</b>	23
<b>5.1. Euskadiko irakasleak - Cyber-Resistance.</b>	24
5.1.1. Aniztasunak eta elkarguneak Euskadiko ikasgelen barruan.	24
5.1.2. Genero-joerak ikasgelen barruan.	24
5.1.3. HIKTen integrazioa hezkuntza-sisteman.	25
5.1.4. Arrisku matxistak irakasleen ikuspegitik.	25
5.1.5. Hezkuntza-sistemak erabiltzen dituen detekzio, prebentzio eta arreta-baliabideak.	26
<b>5.2. Gran Kanariako irakasleak - Cyber-Resistance.</b>	27
5.2.1. HIKTen integrazioa hezkuntza-sisteman.	27
5.2.2. Arrisku matxistak irakasleen ikuspegitik.	27
5.2.3. Hezkuntza-sistemak erabiltzen dituen detekzio, prebentzio eta arreta-baliabideak.	28
Euskadi eta Gran Kanariaren arteko antzekotasun eta desberdintasunen laburpen-taula, irakasleen narratibetan oinarrituta.	28
<b>6. Ondorio nagusiak.</b>	29



01

Proiektuaren testuingurua.

# Cyber-Resistance zer da? zer bilatzen du?

Aurkezten dugun txostena 'Cyber-Resistance: Haurtzaroan ematen diren hirugarren genero-arrakala digitalaren eta ziberindarkeria matxisten aurrean: hezkidetzak, aukerak eta erresistentziak' (PID2022-141970OA-I00) proiektuaren parte da. Ikerketa hau Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren 2022ko RETOS deialdiak diruz lagundutako ezagutza-sorkuntzako proiektua da.

Proiektua Deustuko Unibertsitateko 'Deusto Gizarte Balioak' ikerketa-taldeak gidatzen du, Opciónate – Mejora Tu Vida (Gran Canaria) aholkularitza-enpresaren partaidetzarekin.



Cyber-Resistance proiektuak haurtzaroko generoaren hirugarren arrakala digitalari eta ziberindarkeria matxistei heltzen die, bereziki 5 eta 13 urte bitarteko adin-tartean.

**Haurtzaroaren mundu digitalean agertzen diren genero-kodeak eta eskemak aztertzea**, horiek baitira hirugarren genero-arrakala digitala sortzen dutenak.

**Zibereraso matxista motak aztertzea** eta hurrek gehien erabiltzen dituzten kanalak identifikatzea.

Geografia, adin-talde eta pandemiaren (konfinamendu eta post-konfinamendu) esperientzien arteko konparazio-markoak egitea.

Genero-arrakala digitalak eta ziberindarkeriek norbanako eta kolektibo mailan dituzten **ondorioak identifikatzea**, baita konfinamendu-garaian eta ondoren ere.


Hurrekin lan egiten duten hezkuntza-eragileek (formalak zein informalak) **prebentziorako eta esku-hartzerako dituzten baliabide sozial eta emozionalak aztertzea**.

**Hezkidetzarako tresnak eta gaitasun emozionalak eskaintzea**, gatazkak konpontzeko eta identitateak berdintasunez kudeatzeko.

**Ikerketa 2023 eta 2026 urteen artean garatu da Euskadin eta Gran Kanarian.** Metodologia kualitatiboan eta eztabaida-taldeetan oinarrituta, neska-mutilen errealitate digitalaren diagnostikoa egin da, ikuspegi feminista eta interseksional batetik. Lagina honela osatzen da:



Txosten hau, honako gai hauen arabera egituratuta dago:



A close-up photograph of two children, a boy on the left and a girl on the right, both looking through magnifying glasses. The boy's magnifying glass shows a reflection of a tree. The background is a soft-focus forest with warm, golden light. A large white number '02' is overlaid on the left side of the image. Below the number, the text 'Sarrera - ohar batzuk.' is written in white. A vertical yellow bar is on the right side of the image.

02

Sarrera - ohar batzuk.

# Sarrera - ohar batzuk.

## HIKT:

HIKT akronimoak Harreman, Informazio eta Komunikazio Teknologiai adierazten ditu. Hortaz, dokumentu osoan zehar termino hori erabiltzen denean, harremanak izateko, informazioa kudeatzeko eta komunikatzeko erabiltzen ditugun gailu digital guztiei egiten zaie erreferentzia: mugikorrak, tabletak, SmartTVak, SmartWatchak, bideo-kontsolak eta antzekoak.

## IKUSPEGI INTERSEKZIONALA:

Proiektuak errealitate konplexu batetik abiatzea da, gizartea pribilegioz eta diskriminazioz markatutako elkarguneen multzo bezala ulertuz, eta horrek botere eta menpekotasun harremanak sortzen ditu, generoaren, klase sozialaren, gaitasunaren, kulturaren, jatorriaren, identitate, orientazio sexual, gorputz eta erlijioaren arabera.

## ZIBERFEMINISMOA:

Errealitate digitalaren aurrean, ekintza- politiko eta ideologiko baten moduan kokatzen gara, eta horrek aukera ematen digu errealitate kontrajarriak eta konplexuak identifikatzeko. Ikuspegi honek aukera ematen digu generoaren eskema, rol eta arauak identifikatzeko, baita desberdintasun eta diskriminazioak ere, eta aldi berean, ekintza, eraldaketa eta aldaketa digital eta sozialerako aukerak identifikatzeko.

## GENERO-ESKEMAK:

Genero-eskemak eskaerak, arau eta agindu kulturalak dira, binarismo kultural bat (gizonezkoa/emakumezkoa) mantentzen dutenak, eta horrek pare dikotomiko eta osagarri gisa kokatzen ditu, asimetria kultural bat ahalbidetuz. Eskema hauek, gainera, beste agindu kultural batzuekin elkarguneak sortzen dituzte, eta horregatik pluralaz hitz egitea egokia dela uste da: gizonezkoen/emakumezkoen eskemak.

## GENEROAREN ARRAKALA DIGITALAK:

Genero joera eta eskema horiek mundu digitalean errepikatzen dira, eta horrek mundu digitalean desberdintasunak eta arau/aginduak mantentzen ditu, erabileretan, edukietan, trebetasunetan eta gaitasun teknologikoetan.

## ZIBERINDARKERIAK MATXISTAK:

Sistema (hetero)patriarkalak sortutako indarkeria guztiak offline munduko mekanismo eta kodeekin lotuta daude. Honek aukera ematen digu indarkeria digitalak bere jatorri matxistatik ulertzeko, eta terminologia propioa erabiltzeko: ziberindarkeria sexistak, genero-ziberindarkeria, ziberindarkeria sexuala, ziberindarkeria intrageneroa eta LGBTQI+fobiko ziberindarkeria.

# 03

Alfa belaunaldia.  
Arrakala eta  
joera digitalak;  
norberaren zaintza  
eta babes digitala.

Lehenengo zati honek haurren mundu digitala eta Euskadin zein Gran Kanarian aurrez aurre dituzten errealitate digitalak eta genero-joerak ezagutzen laguntzen digu. Lehenik eta behin, Euskadiko datu eta emaitza esanguratsuenak aurkezten dira, gero Gran Kanariakoak, eta bi lurraldeen desberdintasunak eta berdintasunak sistematizatzen dituen laburpen-taula batekin amaitzen da.

# 3.1

## Euskadiko adingabeak Cyber-Resistance.

### 3.1.1 0 urtetik aurrerako sozializazio digitala.

**Neskek eta mutilek lehen urteetatik multi-pantaila mundu batean bizi dira, familia-edo lurralde-testuinguruari (herria/udalerrria) begiratu gabe.** Gaur egun, etxeetan nagusi diren gailu digitalak: bideo-jokoak, SmartTVak, ordenagailuak, tabletak, mugikorrak eta SmartWatchak dira. Kanal digitalen erabilerari dagokionez, nagusi dira sare sozialak —bereziki TikTok eta Instagram—, YouTube eta Twitch-ekin batera, baita hezkuntza-plataformak ere.

Dinamika hauek kontuan hartuta, **ikusi daiteke haurren ingurune digitalera sartzea pixkanaka eta modu progresiboan gertatzen dela:**

#### 5-6 urte.

Lehen esperientziak **tabletekin, Smart TVekin eta Nintendo kontsolekin** izaten dira; marrazki bizidunak ikustera eta jolastera bideratuta dago erabilera. Adingabe batzuek **WhatsApp** erabiltzen dute familiarekin komunikatzeko. Askok ama edo aitaren pasahitza dakite, normalean amaren pasahitza; horrek pribatutasunaren kudeaketa eta muga digitalak jorrazteko galderak sortzen ditu, genero-ikuspegitik: nor dago haurren ondoan teknologia erabiltzen duten bitartean?

#### 6-7 urte.

Mugikorraren lehen erabilerak agertzen dira (normalean amaren edo aitarenak) eta **SmartWatchak** erabiltzen hasten dira, bideojokoan erabilera zabaltzen da eta **YouTube** edukiekin lehen kontaktua hasten da.

#### 8-9 urte.

Haurrek **mugikor propioa** izatea orokortu egin da, eta ohikoa bihurtzen da **sare sozialetan sartzea, bereziki TikToken.**

Sarbideari dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea anai-arreben, lehengusinen edo lehengusu nagusien presentziak gailuetarako eta saretarako sarbidea aurreratzen duela.

Neskek eta mutilek euren lehen “hurbiltze” digitalei buruz kontatzen dizkiguten istorioek **argi uzten dute etxea dela sozializazio digitalerako lehen gunea.** Hau ez da gertatzen soilik gurasoek ezartzen dituzten heziketa-estrategiengatik; batez ere, **inguruko helduak direlako digitalizazioaren lehen ispilua eta erreferentea.**

## Haurrek kontaktzen dituzten istorioetan kontraesanak, genero-aurreiritziak eta familiek gailuak gehiegi erabiltzen dituztela ikusten da. Adibidez:

Aitek bideojokoak gehiago erabiltzen dituzte amek baino, hala ere, zaintza digitalaren ardura nagusia ametan dago.

Era berean, etengabe aipatzen dute gailu digitalak beti daudela presente euren bizikidetzan eta familia-dinamikan; dela senideen lanagatik, dela gurasoek argazkiak edo bideoak atera nahi dituztelako, edota komunikatzeko konektatzen direlako.

Gai honek kontraesan handia sortzen du haurrengan. Alde batetik, teknologiaren erabilera mugatu edo debekatu egiten zaie; bestetik, ordea, ikusten dute familiek ez dituztela gailuak modu egokian erabiltzen. **Haurrek oso goiz (5 urterekin) antzematen dute helduen mundua pantailen menpe dagoela: dena da berehalakoa, dena erakusten da sareetan eta abiadura bizian doa. Giro digital horrek familiaren dinamika baldintzatzen du eta haurren sozializazio goiztiarrean eragiten du.**

Zaintza digitalari dagokionez, proiektu honek testuinguru askotara iristea lortu du, eta horri esker, haurtzaroko esperientzia anitzak aztertu ahal izan dira. Horrela, argi geratu da zaintza digitala ulertzeko ez dela nahikoa genero-ikuspegia soilik; beharrezkoa da beste kategoria batzuk ere kontuan hartzea, hala nola gizarte bazterketa, genero joerak, erlijioa, kultura edo arrakala digitala.

Haurren esperientziei erreparatuta, estrategiak neurri handi batean familia-testuinguruaren araberakoak dira. Adibide batzuk:

**Sarbidea mundu digitalera:** Gailu teknologikoak dituzten familiek hainbat estrategia baliatzen dituzte; esaterako, erloju digitalak erabiltzen dituzte haurrak kontrolatzeko edota sarbide mugak jartzen dituzte gailuaren arabera (mugikorrak, tabletak edo bideojokoak). Aldiz, baliabide gutxiago dituzten familietan, edo jarrera antidigitala dutenean, estrategiak debekatzaileagoak izaten dira, edo gailu bakar baten erabilera kudeatzera mugatzen dira.

**Hezkuntza maila eta kontzientzia:** Teknologia proaktiboki erabili eta aniztasuna nahiz trebetasun teknikoak lantzen dituzten familiek, negoziazioan oinarritutako estrategia hezitzaileak lehenesten dituzte.

**Kultura eta erlijioa:** Haurren kontuak erakusten dute kultura edo erlijioagatik gurasoek eduki edo gailu batzuk erabiltzea mugatzen dutela, eta debeku hau nesketan nabarmenagoa da.

**Genero-joerak:** Haurren esanetan, gurasoek modu ezberdinean jokatzeko teknologiarekin: aitak proaktiboagoak dira eta jolasa lehenesten dute; amek, aldiz, muga gehiago jartzen dituzte, zaintza eta heziketa ardatz hartuta.

**Familia-dinamikak eta haurrekiko babes falta:** Familiek dinamika desegituratuak, jazarpen edo mugen gabezia dituztenean, zaintza digitalean islatzen da: ez dute edukiei buruz hitz egiten, ez dituzte mugarik ezartzen, eta 8-9 urteko haurrak sarbide librea dute eduki heteroesexistak eta mugikor propioak erabiltzeko. Garrantzitsua da nabarmenzea hau ez dela ohikoena.

**Gizarte Bazterketa:** Haur batzuek migrazio-prozesu edota gizarte-bazterketako bizipenak partekatu dituzte. Egoera hauetan, zaintza digitalaren kontzeptua zaildu egiten da eta kontraesanak azaltzen dira: adibidez, mugikorra ezinbestekoa zaie bakarrik daudenean senideekin harremanetan egoteko edo muga guztien gainetik harreman transnazionalak mantentzeko.

### 3.1.2 Haurtzaroko genero-arrakala digitalak.

Neskek eta mutilek kontaktzen dituzten istorioek genero-eskema eta joeretan kontzientzia kritiko bat islatzen dute. Haur askok sexismoa eta eduki matxistak identifikatzen dituzte, eta, gainera, terminologia egokia erabiltzen dute. Hala ere, **praktikan eta haien dinamiken analisisan ikusi daiteke ideal binario bat dagoela eta hori gustuetan, jolasetan eta adiskidetasunetan mantentzen dela.** Bereziki, haurtzaroan gizonetzkoen egiturak oraindik indar fisiko, lehiakortasun eta trebetasun teknikoarekin lotuta geratzen dira, futbolaren edo borroka-jolasen bezalako erreferenteek indartuta; emakumezkoen egiturak berriz, edertasun, komunikazio- eta adierazpen-trebetasun, eta dantza bezalako ezaugarriak jasotzen dituzte.

Idea horiek erakusten dira haien HIKT erabileran eta ikusitako edukietan. Genero arau eta kodeetatik ihes egiten duten haurrak ere badaude, errealitatea da **generoko arrakala digitalak haurtzaroko lehen etapetatik agertzen direla oro har.**

Bideojokoen munduan, joera nabarmena dago oraindik: mutilek kirolarekin edo indarkeriarekin lotutako edukietarako joera duten bitartean, neskek zaintza, estetika eta harreman sozialak ardatz dituzten jokoak hautatzen dituzte gehienbat.

**Azpimarratzekoa da, halaber, askotan gurasoak izaten direla haurrei edukietarako sarbidea errazten dietenak, nahiz eta joko horiek kutsu matxista, arrazista edo bortitza izan.** Egoera honek **hausnarketa sakona** eskatzen du gizarte gisa.

Nesken kasuan, **8-9 urtetik aurrera hasten dira irudi korporeoarekiko eta zaintza pertsonalarekiko kezka erakusten.** TikTok eta YouTube bezalako plataformek eragin handia dute horretan; izan ere, edertasun eredu hegemonikoak eta indarkeria sinboliko handia transmititzen dituzte.

Sozializazio diferentzialak identitate digital segregatuak sortzen laguntzen du: **gizonek lehiakortasunaren eta boterearen bidez eraikitzen dute euren sareko presentzia; emakumeek, aldiz, agerraldiaren eta itxuraren bidez.**

### 3.1.3 Arrisku matxista digitalak.

Nahiz eta ikerketaren interesa dimentsio digitala aztertzea izan, haurren narratibek errealitate garrantzitsu bat erakusten digute: **HAIEN ARAZO NAGUSIETAKO BAT INDARKERIA OFFLINE-A DA.** Esperientzia eta bizipenetan ikusi dugu oraindik botere-dinamika batzuk berdinaren artean existitzen direla, eta hori ez dela mundu digitalean bakarrik gertatzen, baizik eta leku fisikoetan, hala nola patioetan, gelatan, korridoreetan edo parkeetan. Talde-eztabaidetako dinamiketan biktima eta erasotzaile desberdinak identifikatu dira.

**Indarkeria horiek mekanismo kulturekin mantentzen dira, hala nola arrazakeria, gaitasun ezberdintasunak, gizentasunarekiko fobia (lodifobia), LGTBIQ+fobia, sexismoa...** Horren ondorioz, sortzen dira "lider" eta "azpijokatuak" hegemoniazko ideien arabera, hau da, gizon zuria, heterosexuala, aktiboa eta kirolaria, eta haurtzarotik indarkeria eta diskriminazioak eraikitzen dira.

Online munduari dagokionez, haurren kontakizunetan agertzen den **arrisku nagusietako bat eduki bortitz eta sexistak ikustea da, batez ere bideojokoen bidez.** Gainera, aurreko kasuetan bezala, gurasoak dira eduki horietarako sarbidea ematen dutenak.

Ikerketek sarritan ohartarazi dute lehen harremana pornografia heterosexistarekin gertatzen dela; izan ere, parte-hartzaileek eduki pornografikoa baino gehiago, indarkeriazkoa dela hautematen dute. **Gehienek gailuetan "PIN PARENTAL edo guraso-kontrola" aktibatuta duten arren, hori oztopo garrantzitsu bihurtzen da.**

Alde handia dago familien arauen artean: muga argiak eta guraso-kontrola dituzten etxeetan, arriskuak gutxitu egiten dira. Aldiz, arau gabeko familia dinamiketan —batez ere bazterketa-egoeran daudenetan—, pantailen aurreko esposizioa handiagoa eta kezkarriagoa izaten da.

Egia da, **badaudela haurrak –batzuetan 7 urtekoak ere– eduki pornosexistara sarbidea izan dutenak, nahiz eta kasu hauek gutxienekoak izan.** Eduki horiek gehienetan kasualki heltzen zaizkie, eta normalean mutilak sartzen dira lehenengo, askotan lehengusu handi baten bidez. Testuinguru horretan, **genero-ikuspegitik arreta jartzea komeni da; izan ere, nesken eta mutilen erreakzioek alde nabarmenak erakusten dituzte eduki pornoheterosexistara sartzean:**

## Neskak

Ukazio- eta errefuxu-sentimenduak dira nagusi; horrek agerian uzten du estigmek eta estereotipoek sakon markatzen dituztela oraindik haien sexualitate-parametroak.

## Mutilak

Emakumeen gorputzaren objektibizazioa adina goiztiarretatik normalizatzen da; kasu batzuetan ekintza aktiboak deskribatzen dira, hala nola neskei argazkiak ateratzea (bi kasu eman dira).

Haurren esparruan, bada baztertu ezin dugun beste adibide matxista bat: **indarkeria sinbolikoa eta emakumezkoen gorputzen objektibizazioa.** Umeen ustez, neskek kementsuagoak dira indarkeria mota honen aurrean. Era berean, ohartzen dira kontsumitzen dituzten edukietan emakumeen gorputza objektu bilakatzen dela eta merkaturatu egiten dela.

Nahiz eta adin honetan ez diren gertatzen sexu edo sexismozko ziberjazarpen kasuak, **haurrak kontziente dira neskek errealitate desberdina bizitzen dutela, arrisku eta presio desberdinekin.**

**Adin honetan, ez dira antzeman adimen artifiziala edo geokapenarekin lotutako kasurik, ezta berdinen arteko ziberkontrolirik ere.** Era berean, garrantzitsua da azpimarratzea berdinen arteko arazo digitalak 11-12 urte inguruko taldeetan gertatzen direla.

Datu hauek erakusten digute adin-talde bakoitza bere testuinguru digitalean aztertu behar dela, eta haurtzaroan genero-ziberindarkeriari buruz hitz egitean, arreta jarri behar dugula jolasetan eta haien lehenengo bideo eta edukietan.

Beste arrisku batzuen artean, telefono bidezko iruzurrak eta ezezagunekin izandako kontaktuak nabarmentzen dira. Kasu larririk atzeman ez den arren, bideojokoen espazioa ez dago helduek gainbegiratuta; gainera, mutilak dira pertsona ezezagunekin harremanetan jartzen direnak, nagusiki.

### 3.1.4 Norberaren zaintzarako eta babes digitalerako mekanismoak.

Euskadin parte hartu duten haurrak gaitasun sozial eta emozionalak garatu dituzte, hezkuntza formalari (ikastetxeetako formazioak) eta hezkuntza informalari (familien arteko akordioak eta muga ezarriak) esker. Ikastetxe gehienek zibersegurtasunari eta ikastetxeko jazarpenari buruzko tailerrak eskaini dituzte. Formazio hauek modu positiboan baloratzen dira, haurrei indarkeria eta arrisku digitalak identifikatzen laguntzen dietelako.

Haurren aldetik ezarritako zaintza estrategien artean honako hauek nabarmentzen dira:

Argazki pertsonalak ez partekatzea.

Kontua erabiltzerakoan, beraien benetako izenak ez erakustea.

Pertsona ezezagunak ez gehitzea (salbuespen gisa, bideojokoetan ohiko jarduera gisa normalizatuta dagoena).

Familiaren eta eskolaren arteko koherentziak nabarmentzen dira, eta **etika digitalari eta lineako herritartasunari** buruzko diskurtso koordinatu baten eraikuntza ikusten da, haurren segurtasun sentzazioa eta erantzukizunez jokatzeko gaitasuna indartzen dutelarik.

Aniztasun funtzionala duten haurrak HIKTak ikaskuntza tresnak bezala erabiltzen dituzte, eta horrek erakusten du sarbide digitalak hezkuntza inklusiboa ere bultzatzen duela. Era berean, familia eta irakasleak laguntza-eragile gisa identifikatzen dira.

**Hala ere, zehaztu beharra dago neskek mutilek baino gaitasun handiagoa sentitzen dutela laguntza eskatzeko, gizonen hermetismo goiztiarra islatuz.**

Gaiak etxean lantzen direnean, adingabeek legitimitate handiagoa ikusten dute laguntza eskatzeko, hezkuntza digitalaren eraginkortasuna sendotuz familiarekin batera.



# 3.2

## Gran Kanariako adingabeak. Cyber-Resistance.

---

### 3.2.1 0 urtetik aurrerako sozializazio digitala.

Gran Kanarian, Euskadiren antzera, haurrak HIKT **gailuetara oso adin txikitan sartzen dira, 5 eta 7 urte bitartean**. Lehenengo gailu propio nagusia tablet pertsonala izaten da. Familia-ordenagailua ikastetxeko lanetarako erabiltzen da, eta 5. mailatik aurrera, haurrak ordenagailu propioa izaten hasten dira.

Parte hartu duten haurren esanetan, sarritan adin nagusiagokoentzako bideojokoetan jolasten dute, profil birtualetan jaiotza-data faltsututa. Gutxi batzuek ez dute astean zehar jolasteko aukerarik izaten; gehienek, berriz, asteburuetan bakarrik jolasten dute, ordubete eta hiru ordu artean. Badira, ordea, mugarik gabeko haurrak ere: egunero bost orduz edo gaueko ordu txikietan aritzen direnak. Gainera, gurasoek jarritako mugak gainditzen badakitela onartzen dute beraiek.

---

### 3.2.2 Haurtzaroko genero-arrakala digitalak.

Neskek mutilen aldean YouTuber edo TikToker gutxiago jarraitzen dituztela diote. Gehienbat emakumezkoak ikusten dituzte, eta edukiak edertasunera, dantzara eta lineako erosketetara bideratuta egon ohi dira (adibidez, Lola Lolita edo Lara Campos). Mutilek, aldiz, YouTuber askoz gehiago aipatzen dituzte, gehienak gizonezkoak, eta haien edukiek abenturak, erronkak eta bideojokoak izaten dituzte ardatz (adibidez, MrBeast, Rulas47 edo AuronPlay).

Bideojokoen artean, Roblox, Minecraft, Fortnite, Brawl Stars, Mario Kart eta FIFA dira errepikatuenak; gehienetan, lehiari eta kirolari lotutako edukiak dituztenak. Joko horiek mutilen artean erabiltzen dira gehienbat. Gauzak horrela, argi ikusten da —Euskadin gertatzen den moduan— **gailuen erabileran eta kontsumitzen diren edukietan genero-rolak markatzen direla**.

---

### 3.2.3 Haurtzaroko arrisku matxistak.

**Haurrek kontzientzia maila altua erakusten dute arrisku matxisten inguruan**. Adierazi dutenez, jolasten ari diren bitartean iruzurrak, mehatxuak, irainak, galdera pertsonal deserosoak edota sexu-edukiak dituen publizitatea jaso izan dituzte.

**Ziberindarkeria matxista egiturazkoa eta zuzena da**. Neskak, emakume izate hutsagatik, online bideojokoetako taldeetatik kanpo geratzen dira maiz. Diskriminazio hori saihesteko, askotan mutil gisa aurkezten dute beren burua sarean.

Haurrek eduki heterodirigituak eta pornografikoak jasotzen dituzte, non emakumeen gorputza sexualizatu eta objektibizatzen den. OnlyFans eta Omegle bezalako plataformak ezagutzen dituzte, batez ere publizitatearen bidez.

### 3.2.4 Norberaren zaintzarako eta babes digitalerako mekanismoak.

Arriskuan sentitzen direnean, ohikoena erantzunik ez ematea, deskonektatzea, jokotik irtetea eta gailua itzaltzea izaten da. Ondoren, gertatutakoa aitei eta aitei jakinarazten diete. **Norberaren zaintzarako estrategiak ere ezarri dituzte:** ez dute argazki pertsonalik igotzen, ez dute benetako izena erabiltzen eta ez dituzte pertsona ezezagunak gehitzen (salbuespen gisa, bideojokoetan).

## Euskadi eta Gran Kanariaren arteko berdintasun eta desberdintasunen laburpen-taula, haurren narratibetan oinarrituta.

### Berdintasunak

- Alfa belaunaldiko haurrak 0 urtetik bizi dira ingurune digitalean. Erabat integratutako natibo digitalak dira, mundu hori beraien bizitzaren parte baita jaiotzatik.
- Haurtzaro digitalaren zaintzan estrategia anitzak existitzen dira, baina estrategia horiek konplexutasunetik eta ikuspegi intersektionaletik aztertu behar dira, kategoria estrukturalak kontuan hartuta.
- HIKTen erabilerari buruzko lehen erreferenteak helduak dira, eta horietan kontraesanak eta joerak antzematen dira.
- Genero-kodeak eta genero-joerak indarrean jarraitzen dute, eta sareko erabileretan eta kontsumitzen dituzten edukietan islatzen dira.
- Matxismoaren arrisku ohikoen artean hauek aurkitzen ditugu: eduki heteroeseista izateko sarbidea, emakumeen irudiaren objektibizazioa eta indarkeria sinbolikoa.
- Beste arrisku batzuk honako hauek dira: helduekin konektatzea eta telefono bidezko iruzurrak.
- Etapa hauetan ez dira arazo larriak antzematen ziberkontrolari eta ziberindarkeria sexualari dagokienez.
- Norberaren zaintzarako mekanismoak daude, eta haurrak badakite mundu digitalean babesteko estrategiak; gainera, neska eta mutil gehienek helduen erreferenteak laguntza-eragile gisa hautematen dituzte.
- Arreta berezia behar da dinamika arduragabeak eta/edo gizarte bazterketa egoeran bizi diren familien haurretan.

### Desberdintasunak

- Euskadin offline indarkeriaren jarraikortasunaz hitz egiten da, eta indarkeria hori botereak eta asimetria kulturalak eusteko mekanismo gisa ezartzen dela azpimarratzen da.
- Haurren diskurtsoen bidez ikusten da Euskadin gai honi buruzko tailerrak eta formazioak modu orokorragoan ezarri direla.

A photograph of a man and a young girl looking at a tablet together. The man is on the left, smiling, and the girl is on the right, also smiling and pointing at the screen. The background is softly lit, suggesting an indoor setting. A large, semi-transparent circle is visible in the upper right corner of the image.

# 04

**Familia digitalizatuak.  
HIKTen inguruko  
dilemak, kontraesanak,  
erronkak eta aukerak.**

Atal honetan, lehenik, Euskadiko familien artean eginiko eztabaida taldeetan azaleratu diren emaitza garrantzitsuenak azaltzen dira; ondoren, Gran Kanarian lortutakoak. Gero, bi lurraldeen arteko laburpen konparatiboa eginuz informazioa sistematizatzen da.

# 4.1

## Euskadiko familiak Cyber-Resistance.

### 4.1.1 Familien aniztasuna, guraso-estiloak eta estereotipoak.

Dimentsio honetan datu esanguratsuenetako bat parte-hartzean dago: 41 ama eta 8 aita izan dira ikerketan parte hartu dutenak. Horrek genero-joera eta aginduen bidez alboratutako eta neurtutako errealitatea islatzen du. **Zaintza, ikuskaritza eta hezkuntza, kasu honetan digitala, amatasunarekin lotuta geratzen dira, aitatasuna, aldiz, jarduera ludikoekin gehiago lotzen dira.**

Azterlanean parte hartu duten euskal **amek gizarteak ezarritako autoexigentzia eta genero-moral zorrotza pairatzen dute; ondorioz, lan, familia eta pertsonal eremuetako eskakizun desberdinak bete beharrean aurkitzen dira.** Fenomeno horrek —batzuek ‘superwomanaren sindromea’ deitu diotenak— akidura eta gutxiegitasun-sentsazioa dakartza. Amen kontakizunetan ikusten denez, amatasuna ‘besteen onerako’ den zeregin gisa eraikitzen da oraindik. Mekanismo kultural patriarkal horrek etxe barruko botere-harremanak eta rol banaketa baldintzatzen jarraitzen du.

Hala ere, parte-hartzeari eta kontakizunei dagokienez, **azpimarratu behar da ikerketan emakume euskaldun, zuri eta heterosexualaren kontakizun bat gainjartzen dela, baliabide sozial eta ekonomiko ertain eta altuekin.** Ikerketa errealitate oso desberdinak dituzten ikastetxeetara iristen saiatu den arren, eta ikasgeletan bertan kultura, ekonomia eta gaitasun-aniztasuna diagnostikatzen den arren, parte hartzen duten familiak arau-idealei dagozkie. Horrek aukera ematen digu esateko, **eskolako parte-hartzearen barruan, joera eta agindu kulturalak ere ematen direla.**

Genero-eskemen eta binarismoaren exigentziek bere horretan dirute, amengan ez ezik, baita seme-alabengan ere. Parte hartu duten familiek **ikusten dute txiki-txikitatik nabaritzen direla desberdintasunak itxaropenetan, jokabideetan eta sozializatzeko moduan;** helduek —familiek zein ingurune hezitzaile eta sozialek— kontzienteki betearazten dituzte rol horiek. Familiek diotenez, mutilen jarduerak kirolari lotuta jarraitzen du (batez ere futbolari); neskak, berriz, dantzara eta zaintzara bideratzen dituzte (norberaren irudia zaintzera, besteenaz arduratzera). Era berean, genero-prototipoak normalizatu egiten dira: neskak esparru adierazkor eta komunikatiboarekin lotzen diren bitartean, mutilak ekintzari eta ekoizpenari lotzen zaizkie.



## 4.1.2 Familia-dinamikak eta HITK en erabilera.

HIKTen erabilerak familia-dinamikak sakonki aldatu ditu Euskadin, eta hezkuntza digitalaren, denbora-kudeaketaren eta kontrolaren eta autonomiaren arteko oreka bezalako erronka berriak sortu ditu. Familia-ingurunean erabiltzen diren gailu digitalak —mugikorrek, tabletak edo SmartWatch-ak— eguneroko tresnak bihurtu dira, batez ere haurtzaroko etapa honetan, eta horrek ama eta aitak ezarritako hainbat estilo digital sortzea bultzatu du, bai hezkuntza eta bai laguntzarako.

Euskadin familia sentsibilizatuak eta errealitatearen diskurtso eraikitzaile zein konplexua dutenak badiren arren, egia esan, **familien artean mundu digitalarekiko beldurra eta izua dira nagusi**. Espazio infinitutzat hartzen dute, kontrolrik gabeko espaziotzat, eta arrisku eta eduki desegokiak aurki ditzakete gehienbat. Ideia horrek mundu digitalaren aukerak ikusteko gaitasuna biziki markatzen du, eta zaintza eta kontroleko estrategia hertsatzaileen aplikazioa ekartzen du gogora.

Hala ere, **familiak ondorioztatzen dute ez dagoela “formula bakar bat” hezkuntza digitala kudeatzeko**. Kasu batzuetan —eta beldur diskurtso honengatik— seinalatutako debekuak edo murrizketak ezartzen dira seme-alaben adinaren arabera, beste batzuetan, aldiz, jarduera digitaleko aisialdia eta lineako denbora modu malguagoan kudeatzea aukeratzen da. Identifikatutako estrategien artean lau modelo nagusi nabarmentzen dira:

**1 Debekatzailea:** adibidez, “Altxa Burua” bezalako mugimenduek gailu digitaletarako sarbidea atzeratzearen alde egiten dute.

**2 Negoziazioa:** Familia akordioetan oinarritzen da, denbora, erabilera eta edukien inguruan.

**3 Ezerezipena:** “Delikatuak” diren edukiak aipatu edo eztabaidatu gabe uztea; hala nola, pornografia heteroesexista.

**4 Kontrola:** Edukiak eta mugimenduak zaintzea, SmartWatch bezalako tresnen bidez.

Estrategia guzti hauek batez ere mugikorren erabileran zentratzen dira, gaur egungo familien kezkak ardatz gisa hartuta. Familiak kontzientzia dute errealitate sakonean kontrajarrian bizi direla, non teknologiaren onurak eta arriskuak balioekin eta eguneroko hezkuntza-dinamikarekin nahasten diren. Hori dela eta, arautze hori ez da beti koherentea eta konstantea, eta horrek kontradikzioak eta dilemak sortzen ditu familia-ingurunean bertan. **Familien gehienek “proba eta akats” ikuspegitik jarduten dutela onartzen dute, batez ere gai honi sentiberatuta daudenean.**



### 4.1.3 Arrisku matxistak familia-ikuspegitik.

**Seme-alabek jasaten dituzten arrisku matxistak desberdinak direla adierazi dute amek. Mutilen kasuan, pornografia heteroeseexistaren kontsumoa eta bideojokoekiko mendekotasuna dira kezka iturri nagusiak. Nesken kasuan, aldiz, sexualizazio goiztiarra eta indarkeria estetikoak nabarmentzen dira arazo larrien gisa.**

Era berean, indarkeria sexual digital berri bat agertzen da, adimen artifizialaren bidez egindako biluzkera faltsuak (deepfakes) sortzearekin lotuta. Familiek adostasun handia dute: neskak arrisku hauen aurrean posizio desberdinetik abiatzen direla adierazten dute; beldurra, segurtasun falta eta ahulezia sentitzen dute biktima izan daitezkeen aukeraren aurrean, mutilek aldiz, hori garrantzirik gabe hartzeko edo urruneko zerbait bezala ikusteko joera dute. Desberdintasun honek genero-hedaketak indartzen ditu exposizio digitalaren bizipenean.

Diskurtsoek beste arrisku orokor batzuk ere identifikatzen dituzte lineako bizitzarekin lotuta:

Berdinen arteko indarkeria-dinamikak, hierarkiak eta bazterketak erreproduzitzen dituztenak (baina ez bakarrik mundu digitalean, baita offline ere).

Osasun mentalean eragiten duten inpaktuak, batez ere nesketan antsietatea eta autoestimaren beherakada.

Informazio faltsu edo zeharkakoari gehiegizko esposizioa, errealitatearen pertzepzioan eragina duena.

Diru-iruzurrak eta sexu-helburuetarako trafikoa, arrisku lausotu baina presente gisa agertzen direnak.

### 4.1.4 Familiek erabiltzen dituzten detekzio, prebentzio eta arreta-baliabideak.

**Euskadiko familiek funtsezkotzat jotzen dute trebetasun sozial eta emozionalak sendotzea, ingurune digitalean kontzientziak eta modu osasuntsuan jardun ahal izateko.** Hezkuntza digitalaren, baliabide eskuragarrien eta orientazio tekniko nahiz emozionalaren inguruko adostasun zabala dago. Era berean, eskolarekiko lankidetzaz azpimarratzen dute, **“hezkuntza-komunitatea”** sustatzeko eta guztiak mezu nahiz narrazio bera helarazteko.

Altxa Burua mugimendua praktika ezin positiboago gisa nabarmentzen da. Mugimendu honek familien arteko akordioak sustatzea eta sare bat eratzea ahalbidetu du; bertan, hezkuntza digitalerako estrategiak elkarlanean eztabaidatu, partekatu eta eraikitzen dira. Ikerketan parte hartu duten emakume batzuk mugimenduko kide dira, **eta familien eta hezkuntza-sistemaren arteko lankidetzaz gaitasun komunitario eta kolektibo eraldatzailea dela diote, haurtzaroaren errealitate digitalari aurre egiteko eta arriskuak prebenitzeko.**

Hala ere, **adingabeek pornografiari modu kritikoan heltzeko eta haren inplikazioak ulertzeko aukera emango dien tresna hezitzaile eta emozionalik ez dagoela azpimarratzen dute.** Gabezia horrek zaildu egiten du sexualitateari buruzko begirada gogoetatsua garatzea, eta horrek lagundu egiten du estereotipo matxisten normalizazioa eta gizonen eta emakumeen arteko botere-dinamika desorekatuen ugalketa txikitatik.

“Praktika on” gisa, honako hauek nabarmentzen dira: berrikuspen pertsonala eta familiarra (familia-dinamikak, eta bikotekideak berak eman ditzakeenak); lehenik, pertsona heldu gisa berrikustea; eta, horrela, praktiken eta balioen arteko koherentzia bilatzea; eta adingabeek teknologiaren erabilerari buruzko erabakietan parte hartzea, haien autonomia eta erantzukizun-zentzua sustatuz.

# 4.2

## Gran Kanariako familiak Cyber-Resistance.

### 4.2.1 Familien aniztasuna, guraso-estiloak eta estereotipoak.

Gran Kanariako familia-dinamikek ere **agerian uzten dute genero-patroiek jarraitzen dutela zainketen antolaketan eta ingurune digitalean mugak ezartzean**. Emakumeak dira zaintzaile eta arautzaile rola hartzen dutenak, HIKTetatik eratorritako arriskuekiko kezka modu irmoagoan adieraziz, eta, ondorioz, murrizketa eta debeku gehienak ezartzen dituztenak. Bestalde, parte-hartzaileen artean 19 ama eta soilik 4 aita egoteak agerian uzten du zaintza-eta hezkuntza-lanetan rol banaketak bere horretan dirauela.

Euskadiko datuekin bezala, Gran Kanarian ere **aitek parte-hartze mugatuagoa dute, batez ere jolasean zentratua**, haurrekin lineako jokoak partekatuz eta gailu edo joko berrien erosketak proposatuz. Rol banaketa hau familia-separazioetan areagotzen da, non aitak haurrak beraiekin denbora pasatzen dutenean teknologia erabilera “handiagoa eta libreagoa” dela onartzen dute.

**Familiek genero-rolak sareek indartzen dituztela, eta batzuetan oso nabarmenak bihurtzen direla identifikatzen dute;** adibidez, neska txikien artean skincare errutinen kontsumoa. Aldiz, familiek uste dute bideojokoak nagusiki mutilei zuzenduta daudela, eta askotan eduki bortitz eta sexistaz beteta daudela.

### 4.2.2 Familia-dinamikak eta HIKTen erabilera.

**Familiek HIKTak beraien eguneroko bizitzaren parte direla eta haien garapena geldieztina dela onartzen dute. Segurtasun falta eta tresna falta sentitzen dute haurren teknologia erabilera kudeatzeko.** Gran Kanarian, halaber, HIKTen kudeaketan dilema handiak daudela ikusten ditugu. Izan ere, ikerketan parte hartu duten familiek adierazten dute gatazka amonekin eta aitonekin ere barreiatzen dela, haiek permisiboagoak direla ikusita.

Gran Kanarian, estrategia zehatzenei dagokienez, parte hartu duten **ia ama guztiek estrategia autoritarioak (debeku osoa) eta/edo autoritatiboak (erabilerak baimentzen dituzte baldintza edo arauak) erabiltzen dituztela ikusi da**. Helburua haurren gailuen erabilera ahal den neurrian atzeratzea da. Familia murriztaileek zailtasun bat adierazten dute ikastetxeetan gailuen erabilerari buruzko araudiekin; horrela ikusten da Gran Kanarian ez dagoela sare kolektiborik ikastetxea eta familia, eta beste familiek, irizpideak bateratzeko.

Euskadin gertatzen zen bezala, **familien diskurtsoa beldur eta baita “paniko” narratiboz markatuta dago arrisku digitalen aurrean**. Haien haurtzarora nostalgiaz konparatzen dute, “kaleko hazkuntza” zoriontsuarekin lotuta, seme-alaben errealtatearekin, hazkuntza zailagoa dela uste dute, haurtzaro goiztiarretik arriskueta bideratzen baitituzte, eta gainera etxetik irten beharrik gabe.

### 4.2.3 Arrisku matxistak familia-ikuspegitik.

Jarraian agertzen diren arriskuak bi mailatan antolatzen dira:

#### Kuantitatiboak.

Gailuen erabileraren denborarekin lotuta daudenak.

#### Kualitatiboak.

Eduki ez egokietara (bortitzak, matxistak, arrazistak, homofoboak, pornografikoak) esposizioagatik sortzen direnak, lagunekin edo familiakoekin daudenean kontrolik ez egoteagatik; osasunean eragina (fisikoa, emozionala eta ikaskuntzan), gailuekiko mendekotasuna (haiek izateak edo ez izateak antsietatea eragiten duena), eta bazterketa sozialeko edo FOMO arriskua (pareen zirkulutik kanpo gera daitekeelako beldurra). Arrisku nagusia aipatzen dena pornografia, matxismoa, homofobia eta arrazismoa duten edukiak eskuratzea da.

### 4.2.4 Familiek erabiltzen dituzten detekzio-, prebentzio- eta arreta-baliabideak.

Gran Kanariako familiek onartzen dute ez dutela prestakuntzarik eta premia eskatzen dute arriskuak ezagutzea eta gaitasun digitalak hobetzeko estrategiak ikastea. Prestakuntza eta sentsibilizazio behartua eskatu dute lehen mailatik aurrera, bai gurasoentzat eta zein haurrentzat. Kasu honetan, **Euskadin gertatzen denaren aldean, parte hartu duten familiek adierazten dute ikastetxeetan ez direla prestakuntza horiek ematen, eta ez dutela sortu familien arteko sare kolektiborik edo babesteko mekanismorik.** Hala ere, garrantzitsutzat jotzen dute eztabaidarako eta esperientziak partekatzeke espazioak sortzea.

## Euskadi eta Gran Kanariaren arteko berdintasunen eta desberdintasunen laburpen-taula, familien narratibetan oinarrituta.

### Berdintasunak

- Genero-rolak agerian jarraitzen dute, familiaren eguneroko dinamiketan, rolen banaketan, eta baita haurren zaintza digitalean ere.
- Era berean, genero-joerak ikusten dituzte neska eta mutilen harremanetan, eta baita haien HIKT erabileran eta kontsumitzen dituzten edukietan ere.
- Haurtzaro digitaleko zaintzan dilema familiar garrantzitsuak daude, eta horregatik estrategia desberdinak probatzen dituzte, nahiz eta "modu bakarra" ez egon; egokitzen saiatzen dira, beti ere joera debekatzaila izan.
- Beldur eta paniko diskurtso orokorrak daude, eta horrek antsietate handia sortzen du, baita neska eta mutikoen gaineko gainkontrola eta zaintza mekanismoak ere.
- Bi lurraldeetan, amen kezka nagusiak honako hauek dira: eduki gehiegien esposizioa, gurasoen kontrol faltak, osasun mentalean eragina, eta jasan ditzaketen posibleak diren ziberindarkeriak.

### Desberdintasunak

- Euskadin familien "Altxa-Burua" mugimendu kolektibo sendoa detektatu da, baita ikastetxeen inplikazioa ere, tailer eta prestakuntza espezifikoaren dinamizazioa bultzatu duena.
- Gertaera honek familiek arazoari buruz ikuspegi konplexuagoa izatea eta akordio eta negoziazio estrategiak ezartzea errazten du. Gainera, kolektibitatea sortzen laguntzen du ikastetxean eta/edo herrian.

# 05

**Eskolak aro digitalean.  
Aniztasunaren eta HIKTen  
kudeaketaren aurrean  
dituzten erronkak eta  
aukerak.**

Hurrengo orrialdeetan irakasleen diskurtsoen emaitzak aurkezten dira: lehenik, Euskadiko irakasleen narrazioak, eta ondoren Gran Kanariako diskurtsoak. Azkenik, taula-laburpen bat eskaintzen da, lurraldeen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak jasoz.

# 5.1

## Euskadiko irakasleak Cyber-Resistance.

---

### 5.1.1 Aniztasunak eta elkarguneak Euskadiko ikasgelen barruan.

Euskadiko testuinguru hezigarria aniztasun eta pluraltasun kultural, sozial, linguistiko eta erlijiosoz markatuta dago. Pluraltasun honek aretoetan hainbat errealitate familiar, maila sozioekonomiko eta jatorri bateratzen diren egoerak sortzen ditu.

Hala ere, **aniztasun hori ez da proiektatzen ikastetxe guztietan**. Ikerketan aniztasun handiko ikastetxeak parte hartu izan dutenez, behatu ahal izan da **Euskadin ikasketa-segregazio nabarmena dagoela**.

Ikastetxe bakoitzak bere errealitate propioa bizi du, eta hori faktore batzuek eragiten dute, hala nola kokapena (herria eta/edo auzo zehatza) eta ikastetxearen irudia edo euren “ideal kultural” propioa (ez da hainbesteko garrantzia ematen ikastetxea publikoa edo hitzarmeneko denari). **Beraz, ikastetxeak komunitatearen isla gisa jarduten du, bere ahalmenak eta tentsioak birsortuz: genero-joerak, kulturarteko gatazkak edo gizarte bazterketatik sortutako desberdintasunak trasladatuz.**

Errealitate honen aurrean eta **konplexitate horri modu eraginkorrean erantzuteko, irakasleek baliabide tekniko, hezitzaile eta sozial faltak detektatzen dituzte**. Curriculum hezitzaileak neska-mutil “normatibo” begira diseinatuta dago, Euskadiko hezkuntza-errealitatearen intersektzio-komplexutasuna alde batera utziz.

Gainera, curriculum hezitzaileek gero eta eduki anitzago eta sentikorragoak lantzea eskatzen dute, eta horrek irakasleen erantzukizun karga handitzen du, **bakarrik “hezi” behar dutela sentitzen dutelarik, akademikoa gaindituz.**

Diskurtsoetan **ikaskideen osasun mentaleko arazoak ez dira alferrik pasatzen utzi behar**. Giza baliabide falta dagoela adierazten dute, batez ere arazo horri aurre egiteko garrantzitsua den **babes-figuren—hala nola, gizarte-langile edo ikastetxeko psikologo—absentzia**.

---

### 5.1.2 Genero-joerak ikasgelen barruan.

Irakasleen arabera, **hautzaroon genero-joerak jarraitzen dute beraien jardueretan eta dinamiketan**. Ordu-tegi informalean eta jolasean arreta berezia izan behar dutela adierazten dute, baina hala ere, mutilek presentzialtasun handiagoa dute kirol- eta lehiaketa-jardueretan, eta neskek, berriz, “txoko” txikietan egoteko joera dute (talde txikiak).

HIKTei dagokienez, irakasleek generoaren **“hirugarren arrakala digitala” ere detektatzen dute**. Hau da, neskek dantza eta edertasunarekin lotutako edukiak ikustea nahiago dutela ikusten dute, eta hori haien errutinan islatzen dute, eta mutilek, bereziki, kirola eta ekintzarekin lotutako guztia aukeratzen dute.

Irakasleek genero-joeren kontzientzia hartzearen garrantzia onartzen dute, bai aretoan bai eguneroko elkarreraginetan agertzen direnak. Hala ere, **oraindik ez dago prestakuntza sistematikorik genero-ikuspegitik**, eta horrek aldaketa sakon eta iraunkorrek sortzeko aukerak mugatzen ditu.

### 5.1.3 HIKTen integrazioa hezkuntza-sisteman.

**Ikastetxeetan HIKTen erabilera nabarmen garatu da azken urteetan, batez ere pandemiaren ondoren, tresna digitalen integrazioa azkartzea eragin baitzuen.** Hasieran larrialdi erantzun gisa hasi zena, normalizazio prozesu bat bilakatu da.

HIKTen integrazioa graduala da: haur hezkuntzan pantaila digitalak nagusitzen dira, lehen hezkuntzako bigarren zikloan ordenagailuak edo tabletak sartzen dira, eta azken mailetan gailu hauek erabilera ohikoeneko tresnak bihurtzen dira. Hala ere, **ikusgarriak diren desberdintasunak mantentzen dira, ikastetxearen motaren, erabilgarri dauden baliabideen eta testuinguru sozioekonomikoaren arabera.**

Hala ere, **gaur egun irakasleek oreka bilatzen dute digitalaren eta analogoaren artean, eta “papera berriro erabiltzea” bezalako kontzeptuak ere aipatzen dituzte.** Irakasleek onartzen dute ikaskideak errealtate hiperkonektatu batean bizi direla eta haien ohitura digitalek familia-dinamikak islatzen dituztela, non mugak egoteak edo ez egoteak erabakitzaile diren. Era berean, garrantzitsua dela uste dute heztea “hainbeste teknologiarik gabe”, irakurtzeko-idazteko gaitasunean eta emozioen kudeaketan konplikazioak ikusten dituztelako, adibidez, “dena azkar izan behar du” bezalako antsietatea.

Irakasleek nabarmendutakoaren arabera, **familia zaurgarrienetan teknologiaren erabilera neurrigabea egiten da (“nanny digitala”), eta horrek kalte zuzena eragiten du haurren arretan, berehalakotasunaren kudeaketan eta frustrazioari aurre egiteko gaitasunean.**

Gaur egun, ikastetxeek HIKTen integrazio kontzienteago eta arautuagoa bilatzen dute, baliabide analogoak eta digitalak modu osagarrienean konbinatuz. Prozesu honetan, irakasleek etengabeko ikaskuntza batean daudela onartzen dute, pixkanaka egokituz erronka pedagogiko eta teknologiko berrietara.

### 5.1.4 Arrisku matxistak irakasleen ikuspegitik.

**Irakasleen esperientziek adierazten dute pornografia heterosexistaren eta eduki- matxisten esposizio goiztiarra areagotu egin dela, batez ere ingurune digitalean.** Fenomeno hau eragina dauka nesketan eta mutiletan, pornografia heteroesexista eta diskriminatzaileari adin gero eta goiztiagoan heltzen dietelarik.

Era berean, **adimen artifizialaren bidez faltsutu edo manipulaturako edukiak zabalketari erreparatzen diote,** digitalki sortutako biluzkeren kasuak, haurren arteko ahulezia eta jazarpen egoerak larriagotzen dituztenak.

Euskadin parte hartu duten irakasleek gaia gelan lantzeko inseguritatea adierazten dute, izan ere, haien esanetan ez daukate prestakuntza zehatzik, ezta baliabide pedagogiko egokirik ere.

**Umeetan zinber-indarkeri matxista anitzak identifikatzen dituzte,** desberdintasunak eta diskriminazioak erreproduzitzen dituzten portaera eta edukietan islatzen direnak.

Irakasleek beste arrisku batzuei ere erreparatzen diete: adibidez, pareen arteko dinamika bortitzak, digitaleko mendekotasunak eta ingurune birtualetan kontsumo inplizituaren portaerak. Eskolako txatetan gatazkak eta ulergarritasun falta detektatu ziren, eta horrek ikastetxeei arauak eta erabilera-gidak ezartzera eraman zien.

Era berean, **pertsona ezezagunekiko esposizioa kezkatzen du —batez ere bideojokoen bidez— eta joko horien mendekotasuna, non eduki matxistak eta bortitzak erreproduzitzen diren.** Nesken gorputza sareetan objektu gisa erakustea ere nabarmendu da, batez ere TikTok bezalako plataformetan, eta haurren artean kontsumo eta erosketen ereduaren sustapena ere aipatzen da.

## 5.1.5 Hezkuntza-sistemak erabiltzen dituen detekzio-, prebentzio- eta arreta-baliabideak.

Irakasleek gizarte- eta emozio-gaitasunak pixkanaka haien praktika hezitzailean sartzea nabarmendu dute, nahiz eta kontzientzia eta intentsitate maila ezberdinak izan ikastetxearen arabera. **Ikastetxe gehienek parte hartu dute zibersegurtasun tailerretan eta teknologien erabilera seguruaren arauak irakasteko estrategiak garatu dituzte**, prestakuntzak, sentsibilizazio kanpainak eta bizipen edo parte-hartze metodologiak integratuz.

Euskadin ere, araudiak<sup>1</sup> ezartzen du ikastetxe **bakoitzak gailu digitalen erabilera arautu behar duela nahitaez**. Irakasleek aurrerapauso gisa jotzen dute arautzea eta politika publikoen esparrua; baina, haien diskurtsoetan, ordea, zalantza eta desadostasuna nabari dira, **baliabide eta laguntza instituzionalik eza dela eta**.

**Gizarte-zerbitzuekin koordinazioari dagokionez, irakasleen ikuspegi orokorretik, fragmentazioa eta koordinaziorik ez dagoela behatzen da**. Ez dago esku-hartze prozesu bateraturik, erantzuna udal bakoitzaren eta ikastetxearen arabera delako. Euskadin parte hartu duten irakasleek abandonu-sentsazioa eta gizarte bazterketaren dimentsioaren ezagutza urria adierazten dute, eta ikuspegi anitzari eta aretoko errealitateari hobeto erantzuteko hezkuntza-sistema definitzeko beharra proposatzen dute.

Hala eta guztiz ere, **praktika onak identifikatu dira**, Reset Proiektua, teknologien erabileraren protokoloak, ziberjazarpenari aurre egiteko protokoloak eta tresna digitalen erabilera pedagogikoa barne. Era berean, azpimarratzen da ikastetxeen, familien eta ikaskideen arteko lankidetzaren garrantzia, arduraren partekatze espazioak sustatuz. Batzutan, ikastetxe batzuek familien berrirakaskuntzara bideratutako arauak ere ezarri dituzte, adibidez, ikastetxeko ekitaldietako argazkien erabilera arautzea.

Era berean, koordinazioaren **esperientzia positiboak nabarmendu dira, adibidez, gizarte lan eta psikologia arloko profesionalen presentzia ikastetxe batzuetan** edo BAT taldeen bidezko lankidetzak, non gizarte langile bat integratzen den. Esperientzia hauetatik ondorio argi bat ateratzen da: **irakasleek ere laguntza eta babes emozionala behar dutela, batez ere egoera konplexuak eta errealitate anitzak dituztenek beren eguneroko jarduera hezitzailean**.

Gizarte bazterketa egoerak dituzten ikastetxeetan, berdintasunera bideratutako ekimen desberdinak ezarri dira, hala nola neska, mutil eta irakasleei zuzendutako tailerrak eta "patio inklusibo" proiektuak, ikastetxeko espazioak berdintasunezko ingurune bihurtzea helburu dutenak.

<sup>1</sup> Zehazki, 2024ko urtarrilaren 18ko Instrukzioari egiten dio erreferentzia, Hezkuntza diputatuordeak eta Lanbide Heziketako diputatuordeak argitaratua, ikastetxe publikoek diruz lagundutakoetan telefono mugikorren eta SmartWatch-en erabilera arautzeko alderdi zehatz batzuk ezartzen dituen, haurtzaintza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta Heziketa Profesionaleko etapak ematen dituzten ikastetxeetan, Hezkuntza sailaren menpekoetan.

# 5.2

## Gran Kanariako irakasleak Cyber-Resistance.

### 5.2.1 HIKTen integrazioa hezkuntza-sisteman.

**Pandemiak inflexio-puntu bat markatu zuen, eta irakasleek hainbat erronkari aurre egin behar izan zieten: sarbide zein erabilera-arrakalei eta ikasleen osasun emozionalari,** besteak beste. Ikastetxeetan mugikorren erabilerak sortutako egoerari erantzuteko, Kanarietako Gobernuak 2024ko otsailaren 5eko Ebazpena argitaratu du. Ebazpen horren bidez, oinarrizko hezkuntzako ikastetxe publikoetan eskola-ordutegian telefono mugikorrak erabiltzea debekatzeko jarraibideak eman dira.

Ebazpen honen aurrean, lau eztabaida-taldeetako hiruk onartzen dute ikaskideek gailuak erabiltzen dituztela atsedendian, hartzaindegi edo arreta goiztiarreko espazioetan, jangela-ordutegietan eta batzuetan ikasgelatan.

**Irakasleen ustez, haurrak jolasteko orduan soilik dira 'natibo digitalak', ez hezkuntza-arloan.** Askotan, alfabetatze digitalaren falta eta objektuak irudikatzeko zailtasuna nabarmendu dituzte. Gainera, irakasleak ahul sentitzen dira, ez baitute jardunbide-eredu argirik ez eta gaitasun digital nahikorik.

### 5.2.2 Arrisku matxistak irakasleen ikuspegitik.

Irakasleek adierazten dute neskek eta mutilek kontsumitzen dituzten edukien artean desberdintasunak daudela.

Neskei dagokienez, edertasunarekin lotuta dauden edukiak jarraitzen dituzte, eta edertasun-produktuak (skincare) erabiltzea oso adin goiztiarretan normalizatuta dago.

Mutilak aldiz, gerra edo kirol bideo-jokoetan pasatzen dute denbora, eta tresna hori beraien gizarte-harremanetarako konexioa bihurtzen da.

Hala ere, haien diskurtsoetan ez dira bestelako arazoei buruzko kezka handirik detektatu.

### 5.2.3 Hezkuntza-sistemak erabiltzen dituen detekzio-, prebentzio- eta arreta-baliabideak.

Irakasleek adierazten dute hitzaldi puntualak ematen direla, adibidez azaroaren 25aren (25N) edo martxoaren 8aren (8M) inguruan, **baina ez dago prestakuntza sistematikorik genero-ikuspegitik.**

**Irakasleen esanetan, sortzen diren arazoak Kanarietako Gobernuaren jazarpen-protokoloen bidez bideratzen dira, baina egoerak gainezka egiten diela sentitzen dute.** Hori dela eta, ikastetxeek zibersegurtasunari, ziberindarkeriei, adikzioei eta etika digitalari buruzko hitzaldiak ematen dituzte Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan, Polizia Nazionalarekin, ANAR Fundazioarekin edo Opciónarekin elkarlanean.

Irakasleek, **familiekin bezala, azpimarratzen dute HIKTen erabilera arduratsuari eta haien arriskuei buruzko prestakuntzak indartu behar direla,** eta sentsibilizazioa ematen hasten den adina aurreratu behar dela. Halaber, etika digitaleko prestakuntza gurasoei ere eman behar zaiela uste dute, betebeharrezko joanaldiarekin.

## Euskadi eta Gran Kanariaren arteko berdintasunen eta desberdintasunen laburpen-taula, irakasleen narratibetan oinarrituta.

### Berdintasunak

- Osasun mentala eta gizarte arloko profesionalen laguntza eta koordinazio handiagoa behar dute (Psikologia, Hezkuntza eta Gizarte Lana).
- Neska eta mutiletan genero-joerak eta ereduak antzematen eta identifikatzen dituzte, arreta eman eta landu behar direnak.
- Ikasgeletan osasun mentaleko arazo garrantzitsuak identifikatzen direnean, ezinbestekoa da beste agente sozial eta psikologikoekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea.
- HIKTen inguruan, ez dute arazo tekniko handirik aurkitzen, baizik eta hezigarri, sozial eta emozionalak.
- Oro har, hezkuntza digitalaren parte aktibo direla sentitzen dute, eta horretarako prestakuntza izan behar dutela uste dute. Jarrera proaktiboa dago.
- Era berean, kontziente dira matxistak diren ziberindarkeriak existitzen direla, eta hezkuntza espazio bat izan daitekeela prebentziorako, baina ez bakarra.
- Bi lurraldeetan finkatzen ari diren estrategien artean analogoaren eta digitalaren arteko oreka dago, nahiz eta "papera berriro erabiltzeko" joera egon.
- Familia batzuek HIKTei gehiegizko eta mugarik gabeko erabilera emateagatik, haien hezkuntzan eta emozioen kudeaketan arazo garrantzitsuak diagnostikatzen dituzte.
- Familiekin kudeaketan arrakalak nabarmenak daude, eta familiekin komunitate hezitzailearen parte sentiaraztea beharrezkoa da.

### Desberdintasunak

- Euskadiko hezkuntza-politika publikoek ahalegin garrantzitsua egin dute genero-ikuspegia curriculum hezitzailean integratzeko. Horrela, irakasleak sentikorragoak bihurtu dira eta tresna egokiak dituzte eskura.
- Euskadiko irakasleen artean aniztasun-kultura gaiarekin kezka eta sentirkotasun berezia sumatu egin da.
- Gran Kanarian arrakala handia dago ikastetxe publiko eta itunpekoen artean, baita erabilgarri dauden baliabideen artean ere.
- Euskadin ikastetxeek oro har telefono mugikorraren sarbidea debekatzen duten bitartean, Gran Kanarian neska eta mutilek gailuak eramaten dituztela eta jolasean erabiltzen dituztela kontatzen dute.



# 06

## Ondorio nagusiak.

Cyber-Resistance: Haurtzaroan ematen diren hirugarren genero-arrakala digitalaren eta ziberindarkeria-matxisten aurrean: hezkidetza, aukerak eta erresistentziak” ondorio, erronka eta gogoeta interesgarri batzuk ematen ditu. Hona hemen:

**Garrantzitsua da edozein ikerketa edo errealitate interseksionaltasun-ikuspegitik begiratzea.** Ikuspuntu honek lehenik eta behin diseinatu, galdetu eta testuinguru ezberdinetara sartzeko aukera eman digu, eta horrela errealitatea ikuspegi konplexuago batetik aztertu ahal izan digu, erruak edo erantzukizunak ez sortuz, baizik eta egitura eta arau kulturalak ikusiz; baita normalean ertzetan geratzen diren bizipen ezberdinak ere. Honek Mendebaldeko zuriaren auruetik irtetea eta ikuspegia zabaltzea ekarri digu, hala nola hezkuntza digitaleko estrategiak, edukien sarbide heteroexista eta telefono mugikorrek erabiltzea aztertzerakoan. Noski, mundu digitala paradigmatik honetatik begiratzea merezi du.

Testuinguru honetan, ikerketak erakusten du **prestakuntza eta sentsibilizazio-kanpainak handitzen direnean, herritarren kontzientzia handiagoa dela, eta prebentzio eta esku-hartze estrategiak ere handiagoak direla.**

**OHARTARAZTEN DA** bi lurraldeetan **haurren babesgabatasun eta osasun mentaleko kasuen deribazioak koordinatzeko eta hobetzeko beharra dagoela.** Beharrezkoa da protokolo estandarizatuak ezartzea eta gizarte-zerbitzuen zein osasun mentaleko zerbitzuen arteko laguntza-sarea indartzea.

Bi lurraldeetan irakasleen gaitasuna eta nekea handia dela ikusita, zalantzarik gabe laguntza handiagoa behar da; horretarako, **beharrezkoa dela ikastetxeetan bertan profil espezifikoak izatea, hala nola Gizarte Laneko eta Psikologiako profesionalak.**

**Bi lurraldeak alderatuta, ondorio nagusietako bat da politika publikoen inplikazioa ezinbestekoa dela aldaketa sakon eta eraldatzaileak eragiteko.** Hor indar eraldatzaile handia dago. Ikerketek erakusten dutenez, legeak ikuspegi feministatik ezartzen badira, hezkidetzak, protokoloen sorrerak eta zerbitzuen koordinazioak aldaketa biderkatzailea sortzen dute gizartean. Ziberindarkeriaren prebentziorako ekintza politikoa behar-beharrezkoa da, betiere feminismo interseksionalaren ikuspegitik bideratuta.

Beste alderdi bat konparaketan aurkitzen duguna, **ekintza kolektiboaren beharra da.** Euskadin, ekintza publiko horren ondorioz, talde batzuetan oso praktika positiboak aurkitu ditugu, kolektibitateetik sortuak, adibidez familien taldea (AltxaBurua) edo ikastetxearen, familien eta haurren arteko sinergiak areagotzea.

Ikerketa honek esku-hartze eta ikerketa lerro bat irekitzen digu, **haurren osasun mentala eta arazo honi aurre egiteko, arreta emateko eta esku-hartzeko martxan jarritako ekintzak aztertuz;** baita irakasleen laguntza eta haien osasun mentala ere.

Bi lurraldeek partekatzen dituzten erronketako bat, zalantzarik gabe, **genero-kode eta arauen jarraipena da, haien bizitzan offline, zein online islatzen dena.** Nahiz eta espazio malguagoetan mugitzen diren, ahalegin publiko eta hezitzaileak behar dira gai hauek lantzen jarraitzeko. Kohesio eta ikuspegi feminista erabiliz hausnartuz, estrategia sortzaile eta berritzaileak sortu daitezke haurtzarotik esku hartuz. Hala ere, rolen lanak ez du bakarrik hezkuntza formaletik eutsi behar, baita informaletik ere bai.

Horri dagokionez, **bi lurraldeek erronka bera planteatzen dute: familien aniztasunera iristea (konplexutasunean)**, eta aldaketaren parte sentitzea, hezkuntza-komunitatearen parte izanik. Hala ere, azkartasuna, bat-batekotasuna eta gehiegizko ekoizpena berezko ezaugarriak diren testuinguru batean, ez da erraza horrelako espazioak sortzea dinamika berriak prestatzeko, sentsibilizatzeko eta diseinatzeko. Hala ere, ikusi den bezala, **familia prestakuntza funtsezko estrategia da mundu digitalean eta offlinean elkarrekin bizitzeko.**

Zenbait azterlanek pornografia heterosexisterako sarbide goiztiarraz ohartarazten badute ere, **azterlan honek nabarmentzen du beharrezkoa dela irakasleei, familiei eta adingabeei heziketa afektibo-sexualaren inguruko prestakuntza handiagoa ematea.** Pornografia tabu gisa ikusi beharrian, adingabeentzako laguntza-tresnak garatzea da helburua. Haurrek edukia jaso arren, baztertu egiten dute (nerabeek ez bezala); hortaz, une egokia da errealitate sexista horri aurre egiteko ikuspegi feminista, gorpuzkera eta afektibo batetik.


Era berean, **ikerketak honek ez du ahazten offline indarkeriaren beharrezko aurkezpena.** Indarkeria presentziala patiotan, korridoreetan, ikasgelen artean, kalean eta parkeetan geratzen dena patroiz eta agindu kultural tradizionalen menpe dago: klasismoa, sexismoa, matxismoa, arrazismoa, LGTBI+fobia, gaitasun-fobia, gorpuzkera... Berretsi egiten da prebentzio-lanak beharrezkoak direla, ikuspegi eta perspektiba hauetatik abiatuz.

**Ikusten dugu familietan beldurrak eta dilemak daudela** —eta logikoak dira mundu digitalaren neurria kontuan hartuta—, **baina katastrofismoaren eta negatibismoaren aurrean kontranarratio bat sortzea beharrezkoa da**, bestela haurrei segurtasunik eza eta portaera kaltegarriak sortzen baitzaizkie, hala nola hiperkontrola eta hiperzaintza (adibidez SmartWatch bidez), konfiantza, afektua eta negoziazioa ez dira lantzen. Testuinguru honetan, herritarren ahalegin bat behar da helduen munduko portaera-patroiak aztertzeko eta haurtzaroan nola proiektatzen ditugun ikusteko.

Bi lurraldeek arrisku matxista digital berberak partekatzen dituzte. Horrek erakusten du ingurune digitalak errealitateak interkonektatu eta kultura-homogeneizazioa dakarrela. **Haurtzaroari dagokionez, beharrezkoa da haurrek kontsumitzen dituzten eduki heterosexista eta bortitzak aztertzea. Era berean, ez dugu alde batera utzi behar indarkeria sinbolikoa eta presio estetikoak, batez ere neskengan:** oso gaztetatik proiektatzen zaie beren gorpuzkaren gaineko kontrola, eta horrek antsietate-maila handiak eragiten ditu.

Ziber-indarkeri matxisten hauen inguruan, egia da, nerabezaroan egindako ikerketek erakusten dutena ezberdina dela, **kasu honetan -12 urte arte- ez dira antzematen indarkeria sexual digitalak (emakumeen argazki eta bideoak bidaltzea), adimen artifiziala erabiltzea, bikoteen arteko ziberkontrola...** Etapa bakoitza bere errealitate kultural zehatzean aztertu behar dugu, beren arau eta kodeekin, orokortzeak sortzeko joerarik gabe.

Ikerketaren beste ekarpenetako bat eragile ezberdinak kontrastatzea izan da. Konparaketa honek erakusten digu **helduen populazioan mitoak eta beldurraren diskurtso bat existitzen dela, eta teknologiaren erabileraren inguruan horrek mezurik negatiboenak proiektatzea eragiten duena, bereziki seme-alaben erabilerari buruz, baina beren dinamika propioak kontuan hartu gabe.** Errealitateak erakusten digu ez dela hain katastrofikoa helduen narrazioetan agertzen den bezala. **Neska eta mutil askok badakite nola babestu digitalki eta autozaintza-ohiturak dituzte.** Datu honen inguruan, bereziki arreta eman behar zaie dinamika negatiboak dituzten familietan bizi diren neska eta mutilei edo gizarte bazterketan daudenei.



Garrantzitsua da online eta offline munduek eskaintzen dituzten bidez hitz egitea; horiek nola neurtu eta orekatu aztertzea, betiere ikuspegi feminista intersekzional batetik eta gorputza nahiz emozioak erdigunean jarriz. Kontua ez da teknika hutsez aritzea, afektuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak eta komunikazio-ereduak sortzea baizik. Helburua geure burua online zein offline zaintzen ikastea da, matxismo digitalari aurre egiteko estrategia kolektiboak eta erresistenteak eraikiz.

● *Presentzialetik online-ra, gorputzetik emoziora, eta zaintzatik erresistentziara.*

